


# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko uztailaren 8a / IV. urtea / 135. zenbakia

## Senidetu bai, baina zertarako?

Aurten betetzen dira 30 urte Donibane Garazi eta Lizarrako herriak senidetu zirenetik. Aurretik Maule eta Tutereta eta Baiona eta Iruñea herriek egin zuten bezala, herri eta herritarren arteko harremanak sendotu eta bultzatzea zen helburua. Hala ere, ez dirudi emaitza oparoak eman dituenik. Iparraldetik, batzuetan, hemengo alka-

teen umorearen arabera egiten direla diote, eta Nafarroatik, kasu batzuk kenduta, ez zaio aparteko garrantziarik ematen Euskal Herriko herrien arteko loturak estutzeko baliogarria izan zitekeenari. Eskolarteko harremanak dira oparoenak, baina bultzada baten esperoan diraute, bitartean, zenbait herritarrek hasitako bide hauek.



### Bihotz mudakorrak

**H**arritu eta asaldatu omen ziren orain urte batzuk Nafarroako herri koskor bateko euskaldun lege zaharrekoak ikusi zutelarik herriko parretetan, Nafarroako Gobernua-ren aginduz paratua, kartel eder bat: *Euskaraz hez itzazu*. Lege zaharreko euskaran zaldiak, astoak, eta oro har animaliak egiten direlako hezi; kartelak, haien euskaraz, seme-alabak gabelara lotzeko esaten zien. Eta pentsatzen jarrita igoyal ez da hain makur esana izango, Diputazioko Domatzaile Departamentuak kontseilatzen ziena: hezi zure umea, zaldia, zakurra edo sen bi-

ziko animalia bezala, umea hezitzean hori besterik ez baitugu egiten: haren sena menderatu eta hautsi.

Eta beharrik, zeren ikusita-koak ikusita gizona bere estatu naturalean ondo gauza bildurgarria baita: buruak hartara ematen badio edozer txorakeriarekin sutu eta hortxe hasiko zaizu bazter guztiak joka txikitu beharrez. Badaki horren berri Andres Escobar kolonbiarrak, edo balekike, bizirik balego, animalia basa batek, gizon hezigaitz, hezigabe batek ez balizkio sartu gorputzean urteak hilabete adina balazo, ez balu ikasi bere haragian

### Begi itxi-irekia

MATIAS MUJICA



gizona baino mudakorragoko, saltakorragoko gauzarik ez dagoela, eta salto guzietan motxena izaten dela maitasunetik gorro-

tora doan hura. Horregatik ziran garai bateko andregaiak hain abilak bitrioloaren manejuan; orain, berriz, futbolzaleen txanda. Norbaiti bihotza eman diozunean hark traizio egiten diozunean sastako latza hartzen du bihotzak, eta gure odol punpa pertsonalaren barrenik barrenean dugun interruptore kilikoloa astindu eta hortxe pasa da *love* posiziotik *hate* posiziora (interruptoreen hizkuntza inglesa da).

Ikaskizuna: nafarrok dugun fama ikusita, franko eskas heziak izatearena, Indurainek hobe du listo ibili eta Andres Escobarren buruan ikasi zer etor dakikeen gainera.



Sanferminetako jaiak direla-eta EGUNKARIAn ateratzen ari den gehigarriek hala behartuta, **heldu den astean ez da NAFARKARIARIK izango.**

Jaiak dena betetzen omen dute, eta tokia utzi behar zaie arlo guztietan. Beraz, horien berri ematen ahaleginduko gara. Heldu den **uztailaren 22an**, beti bezala, esku artean izango duzu NAFARKARIA

## GUERE AUKERAK

### ERAKUSKETAK



**Folklore**arekin zerikusia duten jantzien eta erritu berezien erakusketa dago zabalik Burlatako Kultur Etxean, uztailaren 17ra arte. Bertan, jantziak, zeramika, argazkiak, eta beste material ugari ikusi daiteke, lanegunetan arratsaldeko 19.00etatik 21.00ak arte eta jaiegunetan eguerdiko 12.00etatik 14.00ak arte.

**Baztango artisauak** izeneko erakusketa zabalik dago Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Hainbat materialetako eskulturak ikus daitezke, zura, harria eta burnia besteak beste. Arratsaldeko 19.00etatik 21.00ak arte ikus daiteke, uztailaren 29ra arte.

### ANTZERKIA



**'Bienvenidos al Oeste'** izenburuko antzezlanaren taularatuko du asteburu honetan Kollins Clown taldeak Nafarroako zenbait herritan, 'Herriz herri' programaren barruan. Gaur Legarian ariko dira, arratsaldeko 20.30etan; bihar larunbata, Sansol herrian antzeztuko dute obra hau, ordu berean, eta igandean, uztailak 10, Lergara abiatuko dira, eguerdiko 12.00etan hasteko.

**Kokox, Kakax eta Kirriki** pailazoak ariko dira heldu den aste-larunbatean, uztailak 16, Ziordiko herriko plazan, Sakanako Kultur Zikloaren ekitaldien barruan. Arratsaldeko 18.00etan hasiko da.

### BESTELAKOAK



**'Esposa por sorpresa'** izenburuko filmea eskainiko dute asteburu honetan Bidankoze, Meano eta Lorka herrietan. 'Herriz herri' programaren barruan, gaur ostirala Bidankozen eskainiko dute, herriko zineman, gaueko 22.00etan. Bihar, uztailak 9, Meanon ariko dira ordu berean eta etzi, igandean, Lorkan.

**Marrazki** ikastaroa antolatu du abuzturako Baztango Udalak, haurrentzat zuzendua. Ikastaro hau hilabete osoan emanen da, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Bertan parte hartu nahi dutenek aurretik deitu beharko dute.

**Manolo Arozena**, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Jesus Arzallus bertsolarien saioa izanen da heldu den asteazkenean, uztailak 13, Iruñeko Takonera lorategian. Sanferminetan urtero egiten den bezala, eguerdiko 12.00etan hasiko da. Manu Gomezek gajartzaila lanak eginen ditu.

## NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

### Uztailak 8

Lagun batek ohartarazi zidan gaia ez zegoela modan. Halakorik!, esan zidan erdi erdeinuz, erdi irrifarrez, aitakeriaz, alda itzazu galtzontzilo ideologikoak, behingoz! Lagun hori beti izan da ni baino hagitzez listoagoa, garai eta aro ezberdinen haize aldakorren norabidea asmatzen dakienetako, alegia. Ohi ez

horiek guztiak. Solasgai gisa ez dago gaizki baina, nondik nora jotzen den, topikoetara laban egiteko arriskua nabariegia da. Orduan imaginazio pixka bat edukitzea komeni ohi da; batzuetan, kotxea non utziko ordu erdiz edo gehiago bueltaka dabilen gidaria *Prometeo txoferra* dela; hots, Jaungoikoei sua lapurtzeaga-

bete duela burnizko ziriz, inork ezin aparkatzeko, parking-ean ez bada, *mordida* eta guzti. Eta esateko, baita ere, ezen —halabeharraren halabeharra!— burnizko ziriak toki guztietan daudela, horretan ezik, eta —hori ezustea!—, toki horren aurre aurrean entzierroari monumentua egin diotela, inork inori zer bait



bezala, orduko hartan atzeman nuen bere argudiozko harresian barna sartzeko zirikitua. Eta aparkalekuei buruz hasi nintzen. Horretaz mintzatzea ongi ikusita dago: ikaragarri garesti direla, Iruñeko erdikaldean ez dagoela aparkatzeko modurik, alde zaharra bakarrik oinezkoentzat uztearena, kotxea zertarako... gauza

tik edo auskalo zer pekatu itsusi egiteagatik betirako bere kotxetxoarekin bueltaka ibiltzeko kondenaturiko pertsona, edo *Holandar alderraiaren* parekoa, utilitarioa hartuta itsasontzi orde. Honelako matrikarekin hasi ezkerorrik makurrena ere lasaitzen da, eta orduan da unea esateko Udalak Iruñea alderen beste

esan nahiko balio bezala edo. Inork ahaztarazi nahiko baligu bezala nire lagunak aipatzen uzten ez didan toki horretan Iruñeko herriaren eta beste festa paregabeen duintasun puska handi bat datzala ehortzirik, hainbat arduragaberen kotxetxoan gupilen azpian, justu gaurko egunean hamasei urte direla.

### ASTEKO PERTSONAIK



**Javier Aiesa**  
Eako zinegotzia

Iruindarrak, Gora Fermin Deuna' oihukatu zuen Javier Aiesa Eako zinegotziak Iruñeko udaletxeko balkoitik, Sanfermin jaiei hasiera emanaz. Formula berria erabili zuen Aiesak txupinazoa botatzeko garaian, euskarazko esaldiarekin ia urtero gertatzen den bezala. Zinegotzi abertzaleak hitz horiek zuzen esatea nahi zituen, euskara hutsean, eta Jose Maria Satrustegi Euskaltzainarengana jo zuen, formula eskatzeko. Eta hori izan zen bota zuena, lehenbiziko aldiz. Heldu den urtean ikusiko da zer esaten duen suziria botatzen duenak, aldaketak izaten baitira. Jaiak, bestela, pil-pilean daude, lehenbiziko egunetan jendea fresko baitago oraindik. Asteburuan kanpotarrez beteko dira Iruñeko kaleak, ohizkoa denez, astelehenean berriro lasaitzeko.



**Moises Garcia**  
Osasunako jokalaria

Osasuna taldeak egin duen azken fitxaketa da Moises Garcia Leon gaztea, Sevillan jaioa orain dela 23 urte. Edu eta Gerardo jokalaria ohien anaia, Zaragozan aritu izan da azken denboraldira arte, eta Osasunara gogoz etorri dela aitortu zuen, taldea bigarren mailan badago ere. Hiru urterako sinatu du kontratua eta aurrelari moduan ariko da gorritxoekin. Gazteak «ahal duen guztia emateko prest» dagoela azaldu zuen, «Osasunak esfortzu handia egin duelako». Aldaketen taldea bihurtu da Osasuna azken asteotan, entrenatzaile berria, jokalaria mordoa, dena urtebetean lehen mailara igotzeko helburuarekin. Ez du lan erraza izango, lehen mailara igotzea bertan gelditzea baino zailagoa baita. Ilusioa batetik, eta lana bestetik, gogor aritzeko beharra dute.

### AHAZTU GABE!

#### MUSIKA BARRAKETAN



**Kontzertu ugari** antolatu ditu Sanfermin hauetarako Barraken Batzarrak, iazkoa baino programazio osatuagoa presatuz. Honekin batera ekitaldi gehiago daude zonalde honetan, ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoz. Igandean, uztailak 10, EH Sukarra, Patagonia eta Lin Ton Taun taldeen kontzertua izanen da, gauerdian hasita, barraketan bertan, Gaztetxearen aldeko eguneko ekitaldirik nagusiena delarik. Astelehenean, Emakumeen Eguna hain zuzen, Pottoka And Band, Parabelum, Exkixu eta Su ta gar ariko dira, gauerditik aurrera. Asteazkenean, berriz, haur jolasak antolatu dituzte, Malabareak eta Ay Caray taldearekin. Ondoren, gauerdian, berbena hasiko da Elurte taldearen eskutik. Txalaparta emanaldia izanen da osteguneko ekitaldirik garrantzitsuenena, bertan, gauerdian hasita, Imuntzo eta Beloki eta Gerlabeti taldeak ariko baitira.

#### jenero xumekoak

##### Cain'tar J. James

Sos eta emakume bategatik akabatu nian gizarajoa. Orain hala sosa nola emakumea ez dizkiat. Garbi zegok patua zakur zaharra dela eta hari ziria sartzea, ezinezkoa. Ideia bikaina huen. Erruleta nire komenentziaren arabera manejatu nian. Pena duk.

ELIAS SARASA - ERRO

#### ADI!

##### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

##### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

##### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

##### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

16-13

### Arruazu

# Zortzikoa plazan berriro

T. SATRUSTEGI / ARRUAZU

Azken hilabete hauetako lanak eman du bere fruitua eta asko kostata izan bada ere, joan den igandean Arruazuko biztanle guztiek herriko zortziko zaharra ikusteko aukera izan zuten. Aspaldi galdua, herriko Euskara Taldea berreskuratzeko lanetan hasi zen iaz, lehen ohitura zena berriro ere ohitura bihurtzeko asmoz. Sanpedro jaietarako (eskerak aurten eguraldiak lagundu duen) ikasi eta igandean dantzatu zuten herriko gazteek, orain dela 40 urte baino gehiago egiten zen bezalaxe.

Urte asko dira Arruazuko zortzikoa galdu zela eta orain arte inork ez du deus egin dantza zaharra berreskuratzeko, askoren pentsamenduan egon bada ere. Orain dela gutxi sortutako Euskara Taldeak, ordea, bere gain hartu zuen lan hori, inoren laguntza jaso gabe gainera. Ez zen erraza izan, ez baitzegoen musikaren partiturarik.

Lehenbizikoa lana herriko zaharrek hitz egitea izan zen, musika eta dantzaren pausoak zehazteko. Aldi berean, Mikel Aranburu adituak lan garrantzitsua egin du dantza berreskuratzeko orduan, folklore arloan jakituna, beharrezko informazio guztia jaso eta partiturak lortu baitzituen. Iruña Dantza Taldeak, berriz, dantzaren pausoak



Gazteek eguzkipean dantzatu zuten aspaldiko zortzikoa.

ikasi eta Arruazuko gazteei erakutsi zizkien, entseiu ugari eginenez.

Atorra txuria, gainean kolorezko zapia, praka edo gona ilunak eta ezpartin txuriak jarri zituzten gazteek, garai batean bezala, San Pedro jaietako egun nagusian. Iruñeko Gaiteroak hasi ziren aspaldiko musika notak jotzen eta joan den igandeko eguzki azpian hainbeste urtez ilunbetan egon den Arruazuko zortzikoa berriro kalera aterazten. Herriko jende guztia begira,

zaharrenek ezin izan zuten emozioa estali, urte asko joan baitira musika hori entzun edota pauso horiek ikusi gabe. Dantzariak urduri, jaien hirugarren eguna izateaz gain, pausoak behar bezala ez ematearen beldur baitziren. Dantzaldia, ordea, ongi aterazten, denen pozerako.

Inguruetako herrietan dantzatzaren diren zortzikoen antzekoa da Arruazuko: hasieran lerro batean guztiak, bata besteari zapi batekin elkarri lotuta, lehendabiziko dantzariak bakarrik segitzen

ditu dantzaren pausoak. Ondoren, binaka jarritz, musika aldatzen den heinean pausoak ere aldatzen dituzte, batzuk besteen azpitik pasatuz.

Jendearen txaloen artean bukatu zen dantza, ostatu ondoko plazan. Hemendik aurrera urtero dantzatzeko asmoa azaldu dute Euskara Taldeko kideek, baita herriko beste gazteek ere. Akats batzuk zuzendu beharra dutela aitortu zuten, pozik, dantzariak. Hilabete askoren lanak eman zuten, bai, bere fruitua.

T.S.



zeko hamaiketan erosten dutela aitortuko lukete.

Gauzak horrela, ohiturei jarraiki nik urtero-urtero uztailearen 6an eta goizeko hamaiketan erosten nituen praka zuriak, goizeko hamaiketan eta Kale Nagusiko Ortega dendan. Ez zen hori ez lan makala. Eztarri indartsua, ukondo sendoak eta gerri malgua behar zenituen dendariaren arreta zeureganatu, alboko gizon potoloaren bultzadak jota ez erori eta aurreko emakumea trebeziaz gaudituz ahal izateko. Hala eta guztiz ere, esan bezala urte-urtero oztopo horiek guztiak gauditzen nituen, eta nire prakak Ortegaren erosten nituen azken momentuan.

Urteak, ordea, ez dira debalde igarotzen. Aurten ohi denez Ortegara joan nintzen uztailearen 6an, goizeko hamaiketan, azken asteotan nere eztarria, ukondoak eta gerria bizkortzeko entrenamendu gogorak egin eta gero. Elastikoa izerditan aski ongi busti banuen ere, larrua mostradorean uzti nuen arren, ezin izan nuen praka zuririk lortu, alboko gizon potoloa, eta aurreko anderea ni baino azkarragoak izan ziren. Dekadentea, dekadentea oso. Baina hori ez zen txarrena izan. Jarraian prakak Alonso, Alonso, Alonso = Galtzontziloak, Galtzontziloak, Galtzontziloak al-mazen handi bezain gogaikarrietan erosi behar izan nituen gaitzak. Dekadentzia gorena.

### Altsasu

# Hasi da dagoeneko Euskara Zerbitzuak antolatu duen Udan Euskaraz kanpaina

AMAJA AMILIBIA / ALTSASU

Altsasuko Udalak haurrendako urtero antolatzen duen Udan Euskaraz kanpainari hasiera eman zitzaion astelehenean. Maite Iparragirre Altsasuko Udaleko euskara teknikariak esan duenez «ondo pasatzea eta bide batez euskara lantzea da helburua». Osotara 82 haurrek hartuko dute parte, uztailean 65 eta abuztuan, berriz, 17.

Astelehenean bertan uztailean zehar kanpainaren barruan ariko diren 65 haurrak Domingo Lumbier eskoletara joan ziren. Bertan haurrak taldeka antolatu eta kanpainari hasiera eman zitzaion. Uztailean sei begirale izango dira eta abuztuan, berriz, bi. Taldeak adinaren arabera eta ikasturtean zehar matrikulatuta

dauden ereduaren arabera antolatzen dira. Horrela, A erduan matrikulaturiko haurrak talde batean eta D ereduak beste batean biltzen dira. Begiraleak altsasuarrak dira eta 18 urtetik gorakoak.

Bi eta hamar urte bitarteko Altsasuko gaztetxoek euskara landu eta ondo igarotzeko aukera izango dute kanpainaren barruan. Aurten beste urteetan baino haur gehiago matrikulatu dira eta haurrak oso pozik ibiltzen direla dio euskara teknikariak. «Horren froga da iaz izena eman zutenak aurten ere apuntatu direla». Euskara kaleratzeaz gain kanpaina honen ondorioz herriko haurrek elkar ezagutzeko bidea dute. Taldeak goizeko hamarretan biltzen dira eta hainbat ekin-tzatan hartzen dute parte arra-

tsaldeko ordu bata bitartean. Eskulanak, mendia eta ingurunea ezagutzeko irteerak ere egiten dira, baina eguraldi txarra eginez gero ludotekara joanen dira.

Gurasoek egindako inkestaren ondorioz kanpainari berrikuntza batzuk txertatu zaizkio. Aurreko urteotan kanpaina 3. maila artekoentzat bakarrik zegoen zabalik, baina aurten bosgarren maila arte zabaldu da. Bestetik, gurasoek egunean lau ordu gehiegi zela uste zuten, hiru ordutan besterik ez dira ariko. Horretaz gain, arduradun bat egongo da ekintza guztiak koordinatzeko. Lau betebeharrak izango ditu: begiraleen sarrera-irteera orduen jarraipena egin, haurrei zuzenduriko programazioa prestatu, programaren jarraipena egin eta monitorei laguntza eskaini.

### Auritz

# Herri liburutegia zabaldu da

AURITZ

Joan den astelehenean inauguratu zuten Auritzko herri liburutegia, Javier Markotegi Hezkuntza eta Kultura kontseilaria bertan izan zelarik. Bertako Herriko Eskolan, Udala plazan dago eta 29 eserleku eta 1.400 liburu inguru dauzka. Uztailetik iraila bitarte goizeko 10etatik 13ak arte egongo da zabalik. Liburuak sailkatzeko, zenbait atal daude: helduentzako liburuak, haur eta gazteentzako liburuak eta aldizkariak. Halaber, gai bakoitzak zenbaki kode bat du, eta horren arabera biltzen dira liburuak. Liburuak errezago aurkitzeko eta bibliografi fondoak ezagutzeko, katalogoetan azaltzen dira aleak. Irakurleek maileguan hartu ahal izango dituzte liburuak eta horretarako inskripzio txartela baino ez da egin behar.

**N**afarroa, Hego Nafarroa, Ipar Euskal Herriko auzo hurbila senditua da, famili harreman aske daudelakotz mugan baina ere Historia luze baten gatik. Horrela herrien arteko loturak sortu dira naturalki baina Baionaren kasu adierazgarriaren antzera mugaturik gelditzen dira. Hala ere, sendimendua hor denaz gero, etorkizuna zabal zabalik dager Historiak degegin loturen josteko.

## Nafarroarekiko harreman mugatuak

L. ETEZAHARRETA / BAIONA

Kontakizun polita da Iparraldeko herrien eta goi Nafarroako artean sortu diren loturena. Ez da hargatik uste behar Ipar Euskal Herriko udaletxeen lehentasuna Hego Euskal Herrikoekilako loturak direla. Herri 'birazkatuen' mugimendua europarra da gehienbat eta lotura askoz gehiago badaude Iparraldeko hirien eta Europakoen artean Hegoaldearekin baino. Hala ere, beste harreman guzien artean argi ikusten da Nafarroarekin lotuak direla ere Iparraldeko herri asko. Ikusten da horrela Iparraldeko probintzien hiri nagusiak Nafarroari lotuak direla, 'arriba handia' balitz bezala. Bada hor gogoetazkerik eta argi da Historiaren eragina hor dela, gertakizun eta zatiketa guzien gainetik. Politikazko harremanek euskal abertzaletasun baten itxura har baitezakete eta hori azken mende hauetan euskaldunei botere nagusiek debekatzen baitzaiete, festa mailako harremanak nagusi direla erraz ulergarri da. Festari azken urte hauetan hezkuntzaren eta hizkuntzaren grina gehitu zaio. Euskaltzale bat baino gehiagok mutur egin lezake ikusiz «frantsesa eta espainolaren ikastea hobeki» dela helburuetan. Nabari da euskararen trukaztea ez dela oraindik aipagai. Bestalde ekonomia aipamen guti da harremanetan. Hasiera batean garaia eta elkartasun erakuntza garaia datozela erantzun daiteke hala ere eskasak minduei.

**TUTERATIK MAULEKO BIDEAN** Maule eta Tuterako birazkatu ziren 1965.eko uztailearen 4ean. Mauleko alkate zen Jean Pierre Champo eta Tuterako Rafael Anon Baigorri. Mauleko Herriko Etxeko batek dionaz «harremanak aldakorak dira» eta azpimarratzen da «Tuterako egoera politikoa nahasia». Bi udal batzarrek konponduak baitira harremanak, bateak arazoak baldin baditu, bi hirien arteko harremanek pekatzen dute. Hirien arteko harreman gehienetan bezala eskolen arteko harremanak badira. Aurten, Mauleko Lizeo Profesionaleko ikasle batzu joan dira Tuterara 'enpresa ikastaroen' burutzera. Rugby eta gimnasia taldeen arteko trukaketak gertatzen dira eta adineko mauletarrak bidaiaz joaten dira noizbehinka Tuteraraino. Azken denboretan, bi hirien arteko ikas-

tolen harremanak indartzen ari dira: berriki Mauleko ikastola-koak joan dira bitatuz. Donibane Garazi eta Lizarraren arteko harremanak garai berekoa dira: duela 30 urte finkatu ziren. Garaziko Herriko Etxean diotenaz hargatik «hamar bat urtez birazkatzeak ez du ezer sortu». Aurten, urtemugarekin beroparra da gehienbat eta lotura askoz gehiago badaude Iparraldeko hirien eta Europakoen artean Hegoaldearekin baino. Hala ere, beste harreman guzien artean argi ikusten da Nafarroarekin lotuak direla ere Iparraldeko herri asko. Ikusten da horrela Iparraldeko probintzien hiri nagusiak Nafarroari lotuak direla, 'arriba handia' balitz bezala. Bada hor gogoetazkerik eta argi da Historiaren eragina hor dela, gertakizun eta zatiketa guzien gainetik. Politikazko harremanek euskal abertzaletasun baten itxura har baitezakete eta hori azken mende hauetan euskaldunei botere nagusiek debekatzen baitzaiete, festa mailako harremanak nagusi direla erraz ulergarri da. Festari azken urte hauetan hezkuntzaren eta hizkuntzaren grina gehitu zaio. Euskaltzale bat baino gehiagok mutur egin lezake ikusiz «frantsesa eta espainolaren ikastea hobeki» dela helburuetan. Nabari da euskararen trukaztea ez dela oraindik aipagai. Bestalde ekonomia aipamen guti da harremanetan. Hasiera batean garaia eta elkartasun erakuntza garaia datozela erantzun daiteke hala ere eskasak minduei.


**DONAPALEU ZANGOZAREN AHIZPA** Donapaleu eta Zangozaren birazkatzea ofiziala gertatu zen 1993.ean baizik baina Berho, udaletxeko Idazkari Nagusiak dionaz «hori formala zen» zeren harremanak 60.eko hamarkadaren bukaeran hasi baitzen. Azpimarratzen duenaz Berrogain andreak, CES Kolegioan gaztelarraren irakasle zenak hasi zuen. Hasieran ikasle trukaketak ziren, espainola edo frantsesaren ikasteko. Ondoren, harremanak «familia mailakoak» zirela dio Berhok: festen denboretan elkar gomitatzen dute. Goi mailan, udal-letxeek elkar gomitatzen dute. Donapaleuko udaletxean azpimarratzen denaz, auzapeza, Lassalle eta Zangozako, Luis del Castillo Bandres, lagun handiak bilakatu dira. Harreman adierazgarri dauka hori Berhok, uste du ere «gauzak konplizitate mail batetara iritsi ondoren harreman pertsonalek ona badutela» eta «gauzak gehiegi formalizatuz, elkartzearen helburuen aurka joateko arriskua badela».

Senpere eta Altsasuren arteko harremanak 1993.eko uztailearen 4ean ofizializatu ziren, herriko festetan. 'Altsasu' elkarteak sortu zen «populuen hurbiltzea eta Europaren Batasuna» lagundu nahiz 'Europaren urtean'. Eskolen arteko harremanak hasi ziren joan zen udan eta Altsasuz erakusketa bat egin zen. Nafarroa Oinez ekitaldia, Altsasun baitzen, Senperetik autobus bat joan zen. Urte berean, udaberriean, Senpereko artesauen lanak Altsasun agertu ziren. Musika andere senperrak koordinatzen duen birazkatzeak azpimarratzen du «Senpereko elkarte guziek Altsasu taldean parte hartzen dutela harremanetan».

Azkaine eta Lesakaren arteko


harremanak 'auzoen artekoa' dirudi, elkarretarik hurbil baitira. Hamar urte hauetako harreman ofizialetan hala ere udal batzarren artekoa nagusi da.

**IRUÑEA BAIONAREN ARREBA** Baiona eta Iruñearen arteko harreman zaharrena da. Obratu zen 1960.ean, aurreko urtean Henri Grenet Baionako auzapez bilakatu ondoren. Aurreko urtean Baiona birazkatu zen Fort-Lamy, gaur N'Djameña, Tchadeko hiri nagusiarekin. bertako Gobernadora, Doustin. Baionesa baitzen. Hargatik




1960.ean independentziaren garaia etorri zen eta dena hori bukatu zen. Iruñearekiko harreman André Behotegi, Baionako festen Komiteko lehendakariak dionaz «doi bat naturala zen, 1932.ean hasi festak Iruñearen ereduari egokitu baitziren». «Iruñeako alkateen umorearen arabera» doan harreman da «ez hain handi handia» dionaz. 'Baionako Eguna' San Fermiñetan eta 'Iruñeako Eguna' Baionakoetan dira egun aipagarriak. «Zorigaitzez» dio Behotegik. Zeren eskola trukaketa, kirol harreman batzu, bereziki Baionatik Iruñearako bizikleta lehiaketa, gauza bakarrak baitira. Gainera Touraton, alkateordeak dimittitu geroztik, harremanerako sortu udal batzordea urtu da.

Potentzialitate asko lituzkeen harreman emaitza oso gutirekin dela nabaritzen da. Etorkizuna ez da hargatik esperantzarik gabea eta guti aski daiteke, kultur mailatik hasirik Baiona eta Iruñearen ahizpatasuna emankorra bilaka dadien.



Goian, Alfredo Jaime Iruñeko alkatea Baionara egindako bisitaldi batean. Nafarroako herri gehienak Ipar Euskal Herriko herriekin daude senidetuak, baina ez dirudi harreman hauek herritarrengan errotu direnik. Gehienbat harreman



## Eustea, zailena

A.B. / IRUÑEA

Herritarren oniritzia eta partehartzea. Horixe da senidetze baten arrakastaren oinarria. Oso gutxi lortu dute orain arte, eta ez dirudi erraza horrelakoetan esperientzia dutenen azalpenak entzun ondoren. 1992an Iruñean senidetzei buruz egin ziren jardunaldietan aipatu zenez, erraza da horrelako loturak lortu eta ezustutzea hasiera batean, baina zaila oso haiei eustea.

Horrelako ekimenak Bigarren Gerra Mundiala bukatu zenean sortu ziren, eta orduko helburua izan zen sarraskeriaren ondotik senidetearteko loturak estutzea herrien artean. Bake nahiak eta antzekoak aipatzen ziren orduan. Hasierako asmo horien ispilu garbia da Alemanian eta Frantzia, 1988an, bi mila inguru herririk bazituztela eginak beste hainbeste herriekin anaitasuneko hitzarmenak. Britainia Handian mila inguru ziren eta Espainian, kasu, ez ziren ehunera helitzen. Garbi dago, beraz, gerra gehien pairatu zutenak izan zirela eta oraindik badirela arlo honetan aitzindariak. 1955ean Europako Kontseiluak saria sortu zuen harreman hauek gehien bultzatuko zituen herriarrendako.

**ANTZEKOTASUNA NAGUSI AUKERATZEAN** Senidetzeko zenbait irizpide hartzen dira aintzat; horien artean, antzekotasuna da nagusi.

Horregatik, ez du harritu behar Nafarroan dauden herrien arteko lotura gehienak Ipar Euskal Herriko herriekin eginda daudela antzemateak. Baiona-Iruñea, Tuter-Maule, Lizarra-Donibane Garazi, Lesaka-Azkaine, Al-

tsasu-Senpere eta Zangoza-Donapaleu dira horietariko aipagarriak. Ondoren kooperazioa nagusitzen da elkarlanerako herria aukeratzeko orduan, baita urruntasuna eta desberdintasuna ere, beste herri eta kulturak ezagutu ahal izateko. Horrela, azken urteotan Nikaragua, Mexiko eta antzeko herriekin egin diren senidetzeak nagusitu dira. Aukera egiten laguntzeko bada senidetze politza bat herrien eta kontzejoen federazioan, eta bertan dira horrelako hitzarmenak osatu nahi

**H**arreman hauek herritarrengan errotzen ez badira, udalen arteko ikuskizun eta folklore huts bihurtzen dira gehienetan.

dituzten herriak, beren ezaugarriak eta nahiak.


**HERRITARREN ARTEAN ATXIKI BEHARRA** Garbi dago, hala ere, oso asmo onez

izanik ere, harreman hauek herritarren artean errotzen ez badira oso zaila dela eustea; ondorioz, frankotan udalen arteko ikuskizun eta folklore huts bihurtzen dira. Horren adibide garbia da Baiona eta Iruñearen arteko senidetzea, gaur egun bi herrietako alkateari egiten zaion omenaldia besterik ez baita ia. Hori eragozteko harreman hauen errentagarritasuna bilatu behar da, ikasleen arteko trukaketen bidez kasu. Horiei esker gazteek ezagutu ditzakete beste kultura eta bizimoduak, eta ho-

rrek onura handia ematen dio harremanari. Horiekin batera, kultur, kirol eta folklore taldeek hartu behar dute ondoren ekimena bi herrien arteko loturak estuzeko, herritarren iniziatiba sortzen ez bada porrot egingo baitu, halabeharrez, senidetzeak.

Aipatu jardunaldietan Nafarroako hainbat herritako harremanetik sortutako esperientziak azaldu ziren, eta denek azpimarratu zituzten hasierako gogoari eusteko zuden zailtasunak. Bada, ordea, errentagarritasuna aurkitu dionik. Zentroniko herriak, kasu, Kataluniako herri berdintsu batekin hasi zuten harremanak 1984an, eta zainzuriaren inguruan elkartuta, bi herriek antolatzen dituzten ferietan aurkitu dute senidetzearen esanahia. Erriberrin, berriaz, ardo izan da lotura; Sauveterre Guyenne (Frantzia) herriarekin hitzartutako loturari esker, hango mahastiak eta teknikak ezagutzeko aukera izan dute nafarrek. Era berean, bertako gazteek Frantziako herrira egiten dituzten bisitaldiak beste bizimoduak ezagutarazten eta gozatzen lagundu dute.

Zangozaren kasuan, Donapaleurekin harremanak lotuak dauzkana, bi herrien arteko parrekotasunak izan dira lotune handiena. Araozen artean ekonomikoa da nagusi, ez baitute laguntzarik inondik ere, bai eta hizkuntza ere. Euskal Herriko herrien arteko harremanen bitartitasunik mingarriena, dudarik gabe. Iruñeko Udalean, ordea, elkartutako herrietan dauden enpresei erreparatzen diete bereziki, horrek ondorio onuragarriak ekar litzakeela koan.



Iruñeko Hiria torneo itxiaren hirugarren ihardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 29an jokatu.

Unai Garbisu, 2.255 ELOkoa (Euskal Herria)-Zenon Franco, 2.480 ELOkoa (Paraguay).

1.e4,c5; 2.Zc3,Zc6; 3.g3,g6; 4.Ag2,Ag7; 5.f4,d6; 6.d3,e5; 7.Zf3, gZ-e7; 8.0-0,0-0; 9.Ae3,Zd4. Ongi dago zaldia hor. Alfilaz jateak bere arriskuak ere baditu. 10.Dd2,Gb8. Beltzek damaren aldea erasotzeko aukera ikusi dute, edo bederen partida irekitzekoa. 11.e5. Damaren zutabea zabaltzea beltzen onerako izanen da. 11...e5; 12. Ah6,f6; 13.Ag7,Eg7; 14.Ze2,Ag4; 15.c3. Zaldi hori kendu beharra zegoen, baina puntu ahula utziko dute (d3), eta gainera zaldia-alfila borroka prestatu (hainbeste peoiekin, hobe zaldia).

15...Af3; 16.Af3. Ze2 xa; 17.De2,Db6; 18.Gf2,bG-d8; 19.Gd1,Gd6; 20.Dc2,fG-d8; 21.Ae2,Zc6; 22.Eg2,Da5; 23.a3,b5; 24.dG-f1,Db6; 25.Dc1,h6; 26.h4,Ze7; 27.De3,Dc6; 28.Gd1,a5; 29.Af3,a4; 30.fG-d2,Db6; 31.Ef2,Zc6; 32.Ge1,Za5; 33.dG-d1; 34.Ae2,b4; 35.a-b4; 36.Db6,Gb6; 37.d4. Ikus koadroa. Peoien barneraketak geldiezina zirudien. Alfila jokoa jarri behar zuten txuriek. Baina zereginik ia ez dago. 37...d4; 38.d4,Gd4; 39.Gd4,Zd4; 40.Ga1,Ze2; 41.Ee2,Ga6; 42.Ed3,a3; 43.Ec4,Ef7; 44.Ec5,Ga8; 45.Ed6,Gd8 xa; 46.Ec5,Gc8 xa; 47.Eb4,b2; 48.Gb1,Ee6. Txuriek alferrekotzat jo zuten gehiago saiatzea. Egia erran, oso huts txikiak eraman zuten porrotera.

## Urdiaingo errotainberria

Hurrengo pasadizua Nafarroako toponimia eta mapagintza liburutik atera dugu, Urdiain herriari dago-kion aletik. Argi elektrikorik ez zeneko garaian gertatu zen segidakoa. Errotain esaten zaio Urdiainen erretenari, ubideari. Gizon botere-tsu batek herrian berean argi elektrikoa sortzeko tramankulua ezarri nahi zuen. Horretarako lehenagoko errotako errotaina zabaldu behar zuten. Baina, ohi denez, zabalkuntza horrek harrapatzen zituen soroen jabeek ez zuten aho batez argi elektrikoa onartu. Azkenean modu demokratiko batez afera argitzea erabaki zuten, botazio batekin.


«Bakarrik zagon errotia gariyata, artua-ta iyotzeko. Ta, aberats haundi horrek pentsatu zuen herri hontan argiya jarritzia. Orduban argiik ez, e?. Ta, hartako, in behar zan hori. Azekiya hoi haundiyo, ur gehio ekartzeko. Ta beste terko batzuk: 'Ba nere soruei etxakiyok puskai kenduko', ta 'neriei bai' ta 'neriei ez', ta holaxen, ta bototara hemen, da bi aberats alkarren kontra, da batzuk baten alde, da beste batzuk beste batzuen alde. Abeats horik zian don Julian Felipe y Guillermo Goikoetxa, cuñados, biyek kuñaduak. Ta alkarrekin maldadien, e? Ni mutiko txiki-txikia ni-

## Otsokumeak

**N**ire familiako gizon bati orain dela asko gertatutako istorio bat kontatuko dizuet. Ea, hor doakizue:

Nafarroako basoetan otsoak zeuden garai hartan... Egun batean, Arbizuko artzain bat goizean goiz jaikita zizen bila irten zen etxetik. Bidetik zihoala basoa oso polita ikusten zuen, zuhaitzetako hostoak banan-banan erortzen ziren, eta zuhaitzen kolorea marroi eta gorriren antzekoa zen.

Basora heltzean, zizak bilatzen zihoala, konturatu gabe basoan barneratu zen.



**Amaia Reparaz**

(ARBIZU)

Hurrengo egunean semeak esnatu ziren lehenak, otsokumeekin jolasteko. Beraiekin igaro zuten goiz guztia. Arratsaldean lagunei, familiakoei, eta abarrei erakutsi zizkieten otsokumeak. Egunak horrela igaro ziren, baina egun batean gurasoak otsoak hil egin behar direla, bestela ardiak jaten dituztela, gogoratu ziren. Baina hain politak zirenez, semeei ere pena handia ematen zien hiltzeak, orduan artzaina, otsokumeak ez hiltzeagatik, ekarri zituen zakuan sartu eta basorantz abiatu zen otsokumeak askatzen. Orduan, otso ama uluka ari zela konturatzean, otsokumeak askatu eta joaten



Bapatean horbelez estaliriko zulo batean soinu ahul batzuk entzun zituen. Zulora hondoratu, horbela alde batera bota eta... otsokume txiki batzuk ikusi zituen! Hain politak iruditu zitzaizkion... Zaku batean bi hartu eta etxera eraman zituela. Basoan zehar zihoala topatutako zizak zakuan sartzen zituen, beste lekurik ez zuelako. Baina orduan otsokumeek denak jaten zituzten.

Etxera helditakoan, zakua hartu eta bere semei erakutsi zizkien otsokumeak. Semeak, haiek ikustean, galderak eta galderak egiten hasi ziren: «Hozka egiten du?», «gaiztoak al dira?». Artzainak, galdera guztiak erantzun ondoren, hurrengo egunean ondo ikusiko zizutela esanda, otsokumeak hartu, jateko zerbait eman eta saskitxo batean sartu zituen.

utzi zituen. Otso amak otsokumeak behin eta berriro miatzatu zituen, eta gero horbelez estaliriko zuloan sartu zituen. Artzaina goibeldurik itzuli zen etxera. Etxean ere horrela zeuden guztiak, baina garrantzitsuena otsokumeak ondo eta pozik zeudela zen.

Horrela, istorio ahantzezin eta zahar hau urteetan zehar kontatzeari jarraituko diogu.

JUANTXO URDIROZ



**Ez usteak zure atean joka**

**Altxorrik izan zitekeelakoan, gaez izkutuan aritu zen nekazaria, eta etxe erromatar bat atera zuen argira.**

tzala, ta don Julianek ibazi zuen por dos votos. Nere aita ta nere aitona Irunen, alabengana fanik eta, nere aitari ere: 'eman zak botua'. Ta eskusak ta eskusak, ta eztakitzer ta badakitzer, ta 'ekarri ba attuna', ta Altsuko estaziora attunan eske, kotxeekin-da. Bueno, ordubere nere aita attune horren espera, ta: 'bueno, nori botua eman behar dogu?' ta, 'koño —attunak— hoiekin aiskide haundiyak gaituk-eta; baia Felipek, berriz, dirua ematen!' Ta egun duro.

Garai hartan egun durokin egun ardi igual erosten zian. Ta gue aitak: 'eman zak pa egun ta hamar duro'. 'Otsok!' Asike gure attunak eta aitak ere botua don Juliani bota. Bi botookin ibaazi. Ta gero argiya jarri zein, don Julianek, hari botua eman zeanai argiya jarri herriyen, ta bestiei batez! Eta ordubere zian hemen komediyak'.


Progresoa eta soroak ez dira adixkideak. Nafarroan erromatarrek utzi zuten herri-aztarnarik garrantzitsuenetarikoa bat nekazari batek aurkitu zuen. Lurra goldatzean, harrizko ategain eder bat ediren zuen. Altxorrik izan zitekeelakoan, gaez hor izkutuan aritzen zen, eta modu honetan ez bakarrik ategaina, baizik eta garaiko etxe erromatar bat atera zuen argira. Denboraren buruan, harririk besterik ateratzen ez zelako etsita, Nafarroako Foru Aldundiari jakin arazi zion aurkikuntza, azken honek zertxobait pagatuko zion esperantzian. Nafarroako Foru Aldundiak zerbait pagatu zion, baina ez harringatik, soroarengatik baizik, soro hori Gizadiaren Altxor Kulturala bait zen. Nekazariaren goldatuzko kultur hitzaitik dator, hots, kultura. Hitz joku bat, baina nekazaria sororik gabe geratu zen.

# Erribera, Erribera zure landen zabalera

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Erriberak bere eguna ospatuko du heldu den uztailearen 15ean Kaskanten. Goiz goizetik hasita, denetarik izanen da bertan, hainbat kultur ekitaldi lagun, rocketik hasi eta jotetan amaitu arte. Xede nagusia argi bezain garbia izanen da, hain zuzen ere Kaskanterako hurbiltzen direnei Erriberaren irudi folklorikoa alde batera utzita, inguruaren benetako nortasuna azaltzea.

Antonio Gomara Ruiz, Erriberaren Eguna Kultur Elkarte kide kaskantarra, joan den abendutik lanean buru-belarri aritu da ospakizunaren antolakuntzan. Azaldu digunez, Erriberaren benetako izaera hedatzea da antolatzaile dabilzan ororen nahia. «Nafarroako iparraldeko edo Euskal Herriko beste edozein lurraldeko norbaitekin hitz egiten duzun bakoitzean Erribera oso urrun ikusten duela sumatzen duzu. Erriberakoek askoz hobeto ezagutzen dugu iparralde gertu hori, iparraldekoek Erribera baino, eta horrekin bukatu nahi dugu». Haren irudikoz, hilaren 15eko ospakizuna izan liteke aipatu egoera hori amaitzeko bide egokia; izan ere, «dudarik gabe, benetako Erribera eta Erribera osoa ezagutzeko aukera bikaina izanen da, Erriberaren irudi folklorikoa horren atzetik zer dagoen ezagutzeko aukera paregabea».



Ebro ibaia Kastejongo zubiaren azpian.

Aukera paregabe hori 1.300 lagunengatik musu trukeko lanaren ondorioa izanen da. Erriberaren Egunean parte hartuko duten artistak (musikariak, artisauak, dantzariak...) eta antolatzaileak

deus kobratu gabe ariko dira, ez baitute sos bakar bat ere jasoko euren lanaren ordainean. Dena dela, lan horren zatirik handiena, antolakuntza hain zuzen, gutxi batzuen bizkar gainean geratu

da, eta astuna izan omen da oso. «Kaskanten 8.000 lagun bizi gara, eta ez dago lan egiteko prest dagoen jende askorik. Batzuk elkartu gara eta kontua aurrera ateratu dugu, baina gogorra izan da oso, abendutik gaur arte jo eta fuego ibili gara eta. Zorionez, 15ean jende askok lagunduko digu, eta ezer kobratu gabe gainera».

Horri esker, egitaraua mardul-mardula izanen da, gehienbat aurrekontua 2.100.000 pezetakoa besterik ez dela izanen

**K**askanten izango den aukera paregabe hau 1.300 lagunengatik musu trukeko lanaren ondorioz eskaini ahal izanen da.

## Kontuak (diru) kontu

J.K.L. / IRUNEA

■ Aurtengo Erriberaren Eguneko egitaraua ez da antolatzaileek nahi zuten bezain mardul eta zabal izanen. Tamalez, antolakuntzan aritu direnek espero ez zituzten trabekin egin dute topo aurrekontua osatzeko orduan, hain zuzen ere zenbait udalen kontrako jarrera dela eta.

Espero zitekeenaren kontra, Erriberako 24 udaletatik seik ospakizunetan parte hartzeari uko egin diote: Fitero, Korella, Fontellas, Fustiñana, Kadreita eta Buñuelgo udalek hain zuzen.

Emandako argudioak era guztietakoak izan dira, Antonio Gomara antolatzailearen arabera. «Batzuek diru arazoak aipatu dituzte, baina nahiko irragarria da hori, 3.000 biztanleko udal baten 80.000 pezeta ordaintzea ez baita deus. Beste batzuek data horretan herriko jaiak ospatzen dituztela eta erabaki dute ospakizunetan parterik ez hartzea». Dena dela, antolatzaileei Korellaren ezetzak eman die minik eta kalterik handiena. «Biztanleei dagokienez, Erriberako bigarren hiria da. alkatearekin hitz egiten saiatu gara, baina ez du gurekin

hitz egin nahi izan».

Kontuak kontu, hori dela medio ospakizunaren aurrekontua 2.100.000 pezetakoa besterik ez da izanen. Udalek dirutza horretatik 1.700.000 pezeta ordainduko dituzte (udal bakoitzak 27 pezeta herriko biztanle bakoitzeko), eta gainontzekoa zenbait enpresaren laguntzaz beteko da. Bestalde, diru kontuekin jarraituz, aipatzekoa da dantzaldiko berbera taldeko musikariak izanen direla kobratuko duten bakarrak. Horien ordainsaria, dena dela, Kaskanteko tabernek ordainduko dute.

**E**rriberakoek askoz hobeto ezagutzen dugu iparralde gertu hori iparraldekoek Erribera baino, eta horri amaiera eman nahi diogu».

kontuan izanda. «Jendea deus kobratu gabe ariko denez, daukagun aurrekontu murriztari etekin izugarria aterako diogu». Gauzak horrela, uztailearen 15ean txupinazoaren eztaba emanen dio hasiera Erriberaren Egunari, ilunabarreko zortzietan eta Kaskanteko Foru plazan, eta hala arratsalde horretan zehar nola hurrengo bi egunetan hainbat ekitaldi gozatu ahal izanen dira. Rock erakustaldia, kirol lehiaketak, musika banden desfilea, dantzaldiak, aurorak, artisautza erakustaldia, zonaldeko jakien degustazioa, Erriberako dantza taldeen kontzentrazioa, argazki erakusketa, Erriberako jota eskolen kontzertua eta abar izango dira egitarau mardul horretan.

Iaz Tuteran ospatutako lehen-dabiziko Erriberaren Eguna lortutako arrakasta kontuan izanda, Kaskanten ospatuko den bigarrenak ere erantzun ona jasotzea espero du Gomarak. «Iaz jendeak harrera beroa eskaini zion gure ospakizun honi, eta espero daiteke aurten ere harrera antzekoa izatea». Dena dela, harrera beroa izanen ez balitz ere, ospakizunak ondorio onik izanen lukeela ziurtatzen jo zuen gazte kaskantarrak. «Gutxienez Erriberako kultur elkarteetan gabiltzan elkarren arteko ezagutza eta gerora begira elkarlana bultzatzeko balioko du».



Bardeetako poligonoak bildu ohi du jende andana Erriberan.

# «Eusko kultura definitu behar dugu»

ANA UNANUE / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— UEUk Eusko Kultur Gaiak izeneko ikastaro bat izango da, zeuk proposatuta. Zein da ikastaroaren helburua?


**EUGENIO ARRAIZA.**— Ikastaro hau egiteko asmoa aspaldian sumatu nuen hutsune batetik sortu zen. Eusko kultura definitu beharrean geundela sumatu nuen, Euskal Herrian ez baitago bildumarik non

utzi nahi dut, gure asmoa eusko kulturaz filosofatzea edo eztabaidatzea dela pentsa lezakeelako norbaitek. Ez da hori, gurea ez da definizio metafisikoa eta filosofikoa, praktikoa baizik, lurraldetasuna kontuan hartuta egin behar den datu bilduma hain zuzen. Izan dena eta duguna gorpuztea, gainerako herriek egin duten moduan. El Greco, esate baterako, pintore espainiarizat jotzen dugu, ez bere pintura es-

**ARRAIZA.**— Arlo bakoitzean buru direnengana jo dugu. Oporrak direla eta, ez dugu lortu denak hona zuzenean etortzea, baina talde polita osatu dugu hala ere. Gero arloz arlo zehaztu ditugu aztertu beharreko gaiak —hizkuntza arloan, kasu, batuaren historia, euskalkiak, itzulpen-gintza...— eta hizlariak bibliografia jorratzen saiatu dira.

**EGUNKARIA.**— Zergatik au-

keta interesgarria adierazten dute 'eusko' eta 'euskal' hitzek. Eusko Jaurlaritza esaten dugu, adibidez, Euskal Herriko Jaurlaritza izatea duelako helburu, edo Eusko Ikaskuntza edo Euzko Alderdi Jeltzalea, 'eusko-k' Euskal Herriarekiko lotura adierazten duelako, bai lurraldetasunari bai gizarteari begira. 'Euskal-ek', berriz, euskararekiko lotura adierazten du. Horregatik esaten dugu Euskaltzaindia, edo euskal literatura, euskaraz idatzitakoaz ari garenean. Bereiztu beharreko kontzeptuak dira, euskal kultura euskaraz egiten dena delako eta eusko kultura, berriz, Euskal Herriko kultura



Eugenio Arraiza.

JOXE LACALLE

aurkitu eusko kulturaren berri, ez irakaskuntzan, ezta komunikabideetan ere. Alegia, Natur Zientzietako irakasle batek bertako landaretzari buruzko lan bat osatu nahi badu ez daki nora jo. Jakin badaki ikerketak daudela, baina non aurkitu horiek? Arlo bakoitzeko gaiak haurrei emateko moduan egokitzea irakaslearen lana da, baina gai horiek aldeztetik bilduta, aztertuta eta sailkatuta egon behar lukete. Bilketa lan hori ez du inork egin, ordea.

**EGUNKARIA.**— Beraz, eusko kultura definitu beharra aipatzen duzunean ez zara definizio filosofikoz ari, ezta?

**ARRAIZA.**— Ez, eta hau argi

painiar estilokoa zelako, baizik eta Espainian izan zelako. Hori da Euskal Herrian lortu behar duguna: bertako pintoreak, eskultoreak eta abar eusko kulturaren kokatzea. Gerora aztertuko dugu nolakotasun aldetik eusko sena duten edo ez. Eskulturan, adibidez, badago euskal eskola bat —Oteiza, Txillida, Basterretxea...—, pinturan ez bezala. Baina horrek ez du esan nahi ez dagoela euskal pintorerik. Eskola berezi moduan ez ageriarren, badira euskal pintoreak eta horiek ezagutu behar ditugu.

**EGUNKARIA.**— Zein da zuen lan metodoa?

keratu duzue Udako Euskal Unibertsitatea?

**ARRAIZA.**— UEUk betidanik tratatu ditu gainerako unibertsitateek tratatzen dituzten gaiak euskaraz. Baita Euskal Herriko gai berezi batzuk ere, baina ez diogu arreta berezirik eman geure kulturari. Horregatik aukeratu nuen UEU, uste dudalako eusko kulturaren euskaldunok abangoardia izan behar dugula, bestela Euskal Herriko kultura erdaraz egingo da eta.

**EGUNKARIA.**— Euskal kultura eta eusko kultura bereizten dituzu. Zein da bereizketa honen funtsa?

**ARRAIZA.**— Nire ustez bereiz-


edozein hizkuntzatan, nahiz eta gero azpimarratu behar den eusko kultura euskaraz egitea premiazkoa dugula.

**EGUNKARIA.**— Zeuk nabarmendu izan duzunez, euskal kultura eta gainerako hizkuntzatan egindako eusko kultura ez dira kontrajarri behar, baina argi dago bizkar emanda bizi direla. Ba ote dago zubirik?

**ARRAIZA.**— Garbi dago erdaraz idazten duenak, nahiz eta eusko kultura izan, bere hizkuntza aberasten duela, gaztelania edo fantesa. Nire ustez zubia erraza da: itzulpena, hain zuzen. Eusko kultura edozein hizkuntzatan eraiki daiteke. Alemaniar batek hementxo ohiturez edo bizimoduaz idazten du eta hori eusko kultura da, baina euskaratzen ez dugun bitartean herren geratzen da gure kulturaren. Itzuli egin behar da, hori da zubia. Kulturak ezin du itxia izan, usteltzen baita. Kultura irekia da berez.

## Eugenio Arraiza

UEU-KO EUSKAL GAIK SAILAREN KOORDINATZAILEA



SOSLAIA

### Sail berria

Hilaren 18an hasiko den UEUko Iruñeko ikastaldian Eusko Kultur Gaiak izeneko sail berri bat izango da Eugenio Arraizaren ekimenez. Hainbat gai aukeratu ditu —Geografia, Historia, Gizarte eta Ekonomia Zientziak, Natur Zientziak, Zuzenbidea eta Osasuna—, eta arlo bakoitzean buru direnengana jo du Euskal Herriko kulturaren definizio objektiboa egiteko asmoz. Lehendabizi jorratu beharreko gaiak zehaztuko dituzte arloz arlo, ondoren bibliografia landu eta, azkenik, gaiaren atalez ataleko azterketa sintetikoa egingo dute.

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

